

Oztopo nagusia

Lehegoan "Europa" ofizialean barrena ibiltzeko parada izan dut. Europarlamentari batzuekin buruz buru mintzatzeko ere bai. Horrekin batera, dagoeneko "aspaldiko" bizileku izandako Brusel kurritu dut apur batez. Hitz batez, bulego super-ofizial horietako giroa dastatzeko aukera izan dut; eta batera, geure afoinutik ihes eta egun batzuz egurasteko.

Kakotxen arteko "Europa" hori badago, egon. Nola ez! Alfer-lana litzateke ukatzea. Baldintzatu egiten gaitu jadanik; baina Parisek eta Madrilak baldintzatu izan gaituzten bide beretik. "Europa" horretaz nola maiteminduko? Bulego eskerga horietan gure kezkez kezkatzen direla sinesteko, zinez, ni baino aisa sineskorrago eta zozaogo izan behar da. "Europa" horretatik gure herri-eskubideen aldeko bultzada etorriko dela sinestea... gehiegiegi! Bulego horietatik zapaltzaileen aginduak etorriko dira eruz, hori bai. Besterik? Zer etor daiteke arimarik gabeko hyper-soziedade anonimo horretatik?

Denis Langlois frantses intelektual eta eskaldunen adiskide leialarekin luzaz hitz egingo aukera izan dut. "Aukera historiko aparta galtzen ari zarete eskaldunok" —bota dit ziplio—. "Egon den aukera apart horren hiru laurdenak galduak dituzuela esango nuke. Horra hor Kroazia, diodanaren lekuko. Giro internazionala berriro ari da pozointzen... Baltikarrek eta esloveniarrak jokatu dute azkarki. Iaz izan zenuten, ene ustez, Auto-Determinazioaren aldeko herri-mugimendu azkarra bideratzeko momentua. Orain? Ez dakit. Agian bai, oraindik. Baina badagonea on galdua duzue. Eta aurki, zori-tzarrez, osotara galdua izango da. Beranduegi ibiliko dira berriro eskaldunak!"

Gauza horiek gure adiskide argi horren-

gandik entzutean zer senditu dudana azaldu beharrik ez daukat, nik uste. Herra, amorrua, etsipena, nazka, dena nahasian.

— Nola gertatu da hori? —galdetu dit—.

— PNVak ez du horrelakorik nahi —erantzun diot—. PNVa espainiar Estatuaren pilare bihurtu da. Eta ez du entzun ere nahi horrelakorik.

Ezin sinetsia zitzaion, jakina; gure arteko askori bezala. Niri ere, aitor dizuet, urte asko eta asko kostatu zait irestea: PNV zinez da karka, estatista eta neo-karlista borobila.

"Aukera historiko" hori orain dagoela-ta, eta geure ahalegin osoa horretan ezarri beharrean, zertan ibiliak gara PNVaren jokoarengatik?

Laburki bederen.

"Corcuera-legea" ri baiezkua eman, hasteko. Espainiar politzia gure etxeetan inolako trabarik gabe nahi duenean sar dadin. Badakizue: "Larrazabal-go bere Zin" famatuan, horixe aldarrikatu baitzuen Arana-Goirik: "Betor espainiar politzia bizkaitarren exekutara! Betor ordu onean, eta besoak zabalik erretzibituko dute gure burukideek eta gure etxeko-andreak!"

PNVak, *coup sur coup*, gure irakaskuntza —eta gure hizkuntza nazionalaren oinarri nagusietako bat, beraz— berriro ere jarri du PSOE-ren eskutan. Eta edozein abertzalerentzat funtsezkoa den alor hiri, Recalde antzeskaldunaren eskutan bolara luze batez utzi ondoren, orain, desueskalduntze lana aurrerago ere eraman dezaten, Buesa bendeinkatu du PNVak; Donostian egindako balentriak bizkorturik. Ilara galanta!

Preso abertzaleak —ETAkoak ez dira abertzaleak ala?— gure herrira beroriek *hurbiltzeko* bederen, eta sententzietatik aisago bisitatzera joan dakizkien, kanpaina azkar bat hasi da bazterretan. PNVaren erantzuna ez da luzatu:



"Ez!!! Ongi daude duden zuloetan! Ustel bitez urde zerriak! Hobe lukete, behar bezala, gure burukide batzuekin "tragaperra" asunto "garrbi" horietako batean sartzea!"

Zertarako gogoraziko ertzainen buruzagiak espainiar militarrek direna? Zertarako gogoraziko PNVak aspaldianekin egin duen lan ideologikoa: Auto-Determinazioa "txorakeria" da, independentzia "azak jateko

bidea", eta abar? Arana-Goiri-ren esanak hitzez hitz, jakina.

"Europa" ofizial hori gure gaitzen erremedioa den alienabide nabarmena zabalduz, eta *de facto* Madrilerekin bat eginez —azkeneko boto-emateetan ezin garbikiago agertu denez—, oraingo aukera gal erazi digu PNVak; 1975koa alferrik gal erazi zigun bezala.

PNVaren jokabide iraunkor horretan ez dago inolako desbideraketarik. *PNVaren helburua Espainia da, eta ez Euskal Herria*; PNVa ez baita abertzalea, espainolista baizik. PNVak arazo bakar hau dauka Espainiarekin: bere interes ekonomiko merke eta aitor-ezink gure jendea gezurtaratu nola bermatuko. Besterik ez. Eta guk negozio horiek hondatu dizkiogulakoan, etsai.

Aukera gaitzearen erudun nagusia PNVa da. Arana-Goirik sortutako tresna politiko hori ehun urtetan horraino nola usteldu den azaltzea, Tesi poli askoren ikergaia izan daiteke. Baina gaur egun horretan dago arazoa: *Madrilak hemen daukan sostengu nagusia PNVa da*. Hitler-ek Frantziar zenukan Laval hura bezala. PNVa alderdi "collabo" hutsa da. Ez du PNVak nazio-arazoa sortu. Jakina. Baina bai Madrilaren nahia eta interesak ezin leialkiago zerbitzatu —"collabo" on bati dago-kionez—.

Gure jendeak hau zinez sinetsi arte, hemen jai dago.

Baina, badantzut: "biolentzia da gakoa". Gakoa hori balitz, PNVaren eta EAren arteko harremanak onak izango liriteke. Eta ez dira. Oztopoa non den ikusi behar da garbiki.

Eta garbiki ikusi ondoren, jokabidea finkatu.

PNVa indar abertzaleztat joko dugun bitartean, jai.

(* Idazlea)

cartas

Natalidad

Recientemente han aparecido en los medios de comunicación algunos datos demográficos verdaderamente alarmantes. En particular me parece escalofriante el índice de natalidad en Gipuzkoa, que ha bajado ya hasta l'1. Esto, traducido al lenguaje de la calle, significa que dentro de 25 años la población fértil, en nuestra provincia, será, aproximadamente, la mitad que la actual. Asimismo, de mantenerse el mismo índice, dentro de cincuenta años dicha población se reduciría a la mitad de la mitad; es decir, por cada cuatro parejas de hoy en día, habría sólo una. Ya se entiende que no quiero decir que de cada cuatro parejas actuales tres habrían muerto y una viviría aún. Evidentemente, no es esto.

Las consecuencias de tan extremadamente bajo índice de natalidad son auténticamente aterradoras para el futuro de nuestra sociedad. Pensemos, por poner un ejemplo, en nuestra lengua: el euskara. Por grande que sea el esfuerzo, y cuantiosas que sean las inversiones en favor de promocionar el euskara, aunque aumente la proporción de vasco-parlantes, todo habrá sido en vano si al final la población guipuzcoana se va reduciendo de la forma ya señalada. Sería mucho más beneficioso fomentar la natalidad, para promocionar nuestra lengua. Si aumenta la población y también la proporción de vasco-parlantes, el

éxito está asegurado. Si la población disminuye progresivamente, lo que es seguro es el fracaso de la campaña de euskaldunización.

En idénticos términos podríamos referirnos a otros campos de nuestra realidad socio-económico-cultural. Por eso, si se me permite, le haría una sugerencia a nuestro lehenakari, señor Ardanza: Que fomenta el aumento de natalidad en nuestro pueblo con medidas eficaces, como por ejemplo, primar los nacimientos con ayudas equiparables a las que dan otros países —USA: 1.000 dólares, más de 100.000 pesetas por cada hijo. Esto es una política inteligente.

Julio INIGUEZ
(Donostia)

Hartzazu omenalditxo hau

Ezta lehenaldia bururatu zaidala. Gaur, ordea, "BAT" aldizkarian, 5. zk.an, "Karlós Santamaria, Kultur eragilea" kronika irakurri dudanean, lerro hauek idazten hasi naiz.

Hogeitabost urte inguru pasa dira. Hernaniko "EPO" Lanbide Eskolan egiten nuen lan eta Karlós "Junta Rectorako Presidentea" zen. EPOko programak, Torrelavegakoak edo Sevillako programak berdintsuak ziren sasoi hartan. Edo, agintariak horretan ahalegintzen ziren behintzat.

Zuzendaria, inguruko kapitalista,

irakasle batzu... ondo egokitzen ziren egoera hartara ere. Ahaleginak eta bi egiten zituzten egoera alda ez zedin. Urte haietan (66-76), EPOko ikasle, guraso eta irakasle batzuk, pozik eta tinko ekin genion, EPOn hainbat eduki, jarrera, hizkuntza, balore eta abar alda zitezten.

"Junta Rectorako" Presidentearen laguntza oso baliagarria eta sarritan erabakiorra izaten zitzaigun norabide horretan. Euskara eta Euskal Kultura EPOra sar zitezen eta irakazleentzat kritikoa eta parte-hartzaileagoaren alde ahaleginak egiten genituenok, konturatu ginen, gure kezka eta asmo horiek, Karlós-enak ere bazirela eta bere hitzak eta erabakiak, "Junta Rectoran" ildo beretik zihaztela. Nahiz eta, horretarako, Zuzendariari, Irakasle batzuri eta beste batzuek gehiagori esan beharrekoak esan.

Horregatik, neure omenalditxo hau, Karlós.

Joxe GOIKOETXEA
(Barakaldo)

Imaginario

Siempre compro EGIN, pero también leo el "EGIN Imaginario", donde pude enterarme del conjunto de naciones a las que ha tocado jugar con España en el sorteo del Mundial-94 de fútbol. El grupo europeo, como saben los lectores de "EGIN Imaginario", es éste: Estonia, Lituania, Eslovenia, Macedonia, Irlanda Reunificada,

Jutlandia, Albania y... Euskadi. El seleccionador español, al conocer la composición del grupo, declaró: "No nos ha tocado Holanda, que era la selección que temía, así que considero el grupo asequible para nuestra clasificación, pero sin lanzar al vuelo las campanas, digo al revés. El único equipo que nos puede complicar las cosas de cara al Mundial de Estados Unidos es Euskadi, pero tenemos una ventaja sobre él: le conocemos muy bien y sabemos cómo jugar; claro que ellos también conocen nuestro sistema táctico de juego".

N. de la R. de "EGIN Imaginario" al loco autor de estas líneas: no es Estonia sino Letonia, la que se medirá con España y Euskadi en el grupo tal del mundial ése del deporte que dice.

Fakundo TAJADA

Eraso sexistarik ez

Urtea bukatzeko zorian dagoen hontan, beti bezala, klase gutzitako oparitxoak, zozketetarako zenbakiak eta abar luze bat jasotzen hasiak gara. Kriterion komertzialak agintzen duen bezala, taberna gutziek banatzen dituzte zozketa horietako zenbakiak dituzten eskuizo egutegiak. Baina zer sorpresa aurren! Dirudenez, orain arte ikusi izan ditugun emakume *objeto pasiboaren* irudiak nahikoa ez zirelakoan, listoa gaituztuz, ikusi bakarririk ez, emakumeak ondo aukera-

tuak izan gaitzen proposatzen da. Geure kalitate ona konprobatu eta gero, teknika sinpleago edo sofistikatuago batez erabiltzeko izan eta gero kontsumituak, janak, irentsiak, xurgatuak eta desagertuak izan gaitzen proposatzen da. Sinestezina.

Ez da bakarrik idea honen egi-leak duen gusto txarrak haserretzairetan nauena. Bakotza den bezalakoa da, baina publikoki, eta gizarzarte ideia hori banatzea jasan ezinezkoa da. Egileek eta banatzaileek duten maila personala, eta giza erlazioez (sexualak barne) duten kontzeptua maila bajuenetakoa dela begibistakoa da, eta pena ematen du azken finean, pertsonen arteko erlazio libreak duten satisfazio eta gogotasuna ezagutzen ez dutela konprobatzea.

Baina zabalkuntza hori hartzen ari den tamainagatik, ezin dit isilik gelditu, eta salaketa publiko bat egiteaz gainera, zuen atentzioa eskatzen dut, emakumeok pertsona osoak garelako sinisten duzuenoi, halako erasorik erantzunik gabe onar ez dezazuten.

Erantzuteko ordua da. Geure herriko tabernetan, egunero sartzen garen lekuetan, gutaz halako ideia dutela jakitea jasangaitza da. Inolako graziazik ez duela jakin dezate, eta ez dugula halako erasorik sekula onartuko. Nahikoa da.

Belen URANGA
(Zumaia)